



**ARRASATE**  
natura bideak rutas naturales



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

# UDALATXeko BIRA






## UDALATXEO BIRA

Ibilbide zirkular honek bira ematen dio Udalatx mendiari eta aukera ematen du bera ezagutzeko tontorrera igo barik. Bidea pasatzen de Besaide euskal mendizaleen topagunetik, eta pixka bat desbideratuz aukera dago gune eder bi bisitatzeko, ezkutuan gordean daudenak: Lizuetako koba eta Santa Luzia ermita; azken hori Elorrioko lurretan.

PERFILA



MIDE

Ibilbidearen maila teknikoa eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.

Denbora	6 h
Igoera desnibela	1000 m
Jaitsiera desnibela	1000 m
Distantzia horizontala	18 km
Ibilbide mota	Zirkularra
Injurune naturalaren gogortasuna	1
Orientazioa ibilbidean	2
Zailtasuna desplazamenduan	2
Egin beharreko esfortzua	4



## MAPA



## IBILBIDEAREN AZALPENAK

▪ **(A) Monterrón parkea.** Ibilbidea hasten da Monterrónen, eta ezkerrera bidegorria hartuta Garaia industrialdera doa. Han bidegorria uzten du eta eskumarantz doa gorantz espaloitik. Gero, hartzen du gorantz doan errepeidea, eta ezkerrerantz doa bidexkatik, elektrizitate dorrearen albotik. Bidexka hori doa pista bateraino, eta gero hura segitzen du aurrerantz. Kobate harrobia igarotzen du, eta aurrera egiten du abiadura handiko trenaren zubiaren azpitik; laster hartzen du eskumara Arlabango zubi naturalean, Karraskain errekan gora.

▪ **(B) Arlabango zubia.** 300 metro aurrerago hartzen du ezkerrera doan pista, eta igoera gogor baten ostean iristen da Besaidera, Yoshin Ogataren monumentura.

▪ **(C) Besaide.** Han hartzen du eskumara, eta aurrera jarraitzen du iturria eskuman utzita. Gero, jarraitzen ditu PR ibilbidearen marra zuri-horiak. Laster hark eskumara egiten du, baina bidea doa aurrera, lehengo GR ibilbidearen marra zuri-gorrien atzetik. Pista nagusia utzi barik, Udalatx ostetik iristen da Kanpanzarrera.

▪ **(D) Kanpanzar.** Han jarraitzen du gaur egungo GR ibilbidea, baina eskumarantz igotzen dueñeak egiten du Salturriira; handik zuzen, Udalako jaitsieratik Monterrónera, irteera puntura.



1



▪ **Lizuetako koba:** Arlabango zubian eskumara egin beharrean aurrera eginez gero hormigoizko pistatik 100 metro inguru eta eskuinerantz bidexkatik jaitsita, aurkitzen da koba ikusgarria hau.

2



▪ **Besaide:** monumentua eraiki zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa elkartzen diren tokian, mendian hildako mendizaleak oroitzeko. Gaur egun, ekitaldi bat antolatzeko bertan iraileko hirugarren igandean, urtean hil diren mendizaleak gogoratzeko.

AR



▪ **Santa Luzia ermita:** aterpe irekia du, tenpluari atxikia. Andre Mariaren irudia, harrian landua, atearen gaineko horma hobian dago. Bertara Besaideko iturritik 2,2 kilometrora ezkerrera artadian gora igota iristen da.

■

▪ **Artadi kantauriarra (*Quercus ilex*):** klima mediterraneoari lotutako basoa itxia dugu, gorde dena gainazaleko lurzoruetako eremuetan. Horri lotuta daude klima mediterraneoko espezie tipikoak, adibidez endalaharra (*Smilax aspera*).

- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- GR 123 Bizkaiako bira
- PR-96 Udal-Besaide
- Udalatxera igoerak
- Herrigunea-Udalak